

**EUSKERA ARLOKO LAGUNTZAK JASOTZEKO DEIALDIA, 2019KO EKITALDIA**

Alkatetzaren 173/2019 zenbakidun dekretuaren bidez, euskara arloko diru-laguntzen deialdia onartzen da, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dabean oinarri berezietan araututakoarekin bat etorritik, jarraian zehatzen dan moduan.

Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza Udalbatzak onartzeko erabakian ahalmena ematen jakon alkateari ordenantza garatzeko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hau hartu dau:

**Lehenengoa**

2019ko ekitaldirako euskara arloko diru-laguntzen deialdi publikoa onartzea, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dabean oinarri berezietan xedatutakoaren arabera. Oinarriak 242. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2010eko abenduaren 20an.

**Bigarrena**

Diru-laguntzaren aurrekontu-muga hiru mila (5.000,00 euro) eurokoa da, eta 3350 48000. aurrekontu partidaren kargura ordainduko da.

Diru-laguntza honetarako norbanako bakoitzeko diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa eskatzailearen gastuen %100 izango da, eta, gehienez, 600 euro.

**Hirugarrena. — Xedea**

Barrikako Udalak diru-laguntzak em Barrikan errolatuta daeta euskara ikasten d, Udalaren asmoa baita euskara ikastea bultzatzeaz gain, udalerriko

Halaber, zentro ofizialetan edo Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren bidez emoten diren euskara ikastaroak ere diruz lagundu ahal izango dira. Ondorio hauetarako, zentro ofizialtzat hartuko dira euskara ikasteko eta irakasteko homologatuta dagozanak.

**Laugarrena. — Onuradunak**

Diru-laguntza honen onuraduntzat hartuko da Barrikan bizi eta zenbait baldintza betetzen dituen edozein norbanakok. Hona hemen baldintzok:

1. Diru-laguntzari dagokion 2018-2019 ikasturtean euskara ikasteko ikastaroak egin izana.
2. Barrika udalerrian errolatuta egon behar da, behintzat, laguntzaren helburu dan ikastaroa hasi baino urtebete lehenago eta ikastaroa amaitu arte bertan errolatuta egon behar da; hala ere, zenbait kasutan, beharkizun hori betetzea ez da ezinbestekoa izango, kasu horiek informazio-batzorde eskudunak aztertu eta ebatziko ditu.
3.
  - a) Diru-laguntzaren xede den ikastaroan emandako eskola-ordu guztien %90era, behintzat, bertaratu izana egiaztatzea edo.
  - b) Zentro ofizial batean maila gainditu izana egiaztatzea.
4. Eskatzaileak eta bere familia-unitateak Barrikako Udalean ordaindu beharreko zerga, tasa eta prezio publiko guztiak ordainduta izan behar dabez.

Aurretik aipatutako betekizun guzti-guztiak egiaztatu beharko dira; horretarako, agiri egokiak aurkeztu beharko dira.

Era berean, diru-laguntza horren onuradun izan ahangor dira Barrikako Udaleko langile finkoak eta jardunean daudenak..

Diru-laguntza honetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Irale edo HAEEn berriazko programen bidez, ikastaroak egin dabeanak edo beren enpresen edo erakundeen diru-laguntzak jasotzen dabeanak.



- HABEk emondako diru-laguntzak jasotzeko eskubideak emoten dabezan azterketak gainditu dabezanak: 1. maila, 2. Maila eta EGA

**Bosgarrena. — Diru-laguntzak emoteko modua**

Diru-laguntzak emateko modua lehiaketa bidezkoa da, puntuen arabera hainbana-keta sistema erabilita. Horrela, onartutako eskabide guztiek diru-laguntza barik geratu ez daiten.

Diru laguntzak banatu ondoren, aurrekontuko kontu sailean soberakin geratuko bali-tz, eta eskatutako zenbatekotik behera emon jakon eskabiderik balego, banatu egingo litzateke soberakin hori eskatzaileen artean, berriro ere puntuak hainbanatuz, harik eta kreditu erabilgarria agortu arte.

Barrikako Udaleko Informazio Batzordeak aztertuko ditu dirulaguntzaren eskaerak.

**Seigarrena. — Baloratzeko irizpideak**

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak esleitzeko, irizpide hauek aztertuko dira:

	Irizpideak	Puntuak gehienez (€)
1	Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa: balorazio handiena emango jako zenbateko txikiena daukanari.	25
2	Egin beharreko jarduerareb edo ikastaroaren iraupena: balorazio handiena emango jako iraupen txikiena daukanari.	25
3	Diru-laguntza eskatu dan ikastaroaren antzintasuna edo maila: balorazio handiena emango jako antzintasun edo maila altuena daukanari.	25
4	Ikastaroa udal-euskaltegietan jasotzea.	25

**Zazpigarrena. — Aurkeztu beharreko agiriak**

- Sinatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Matrikula ordaindu izanaren frogagiria. Barnetegi edo antzeko zentroen kasuan, bereiztu egingo dira kostu akademikoa eta egonaldiaren kostua; eta diruz lagun-duko den bakarra kostua akademikoa izango da.
- Honakoak jasoko dituen ikastetxe ofizialaren frogagiria:
  - a) Emondako eskola-orduen %90era bertaratu izana, edo.
  - b) Ikastaroa gainditu izana.
- HABEk ematen dituen diru-laguntzak lortzeko azterketa gainditu ez dela egiazta-tzeko agiria.

Aipatutako agiri eta datuez gain, Barrikako Udalak, kasuaren arabera, eskatzaileari agiri osagarriak eskatu aha izango deutsoz, aurkeztutako eskaria baloratzeko egokitzat jotzen baditu.

Ehaztutako agiriren bat Administrazioaren esku badago, diru laguntza eskatzen denak eskubidea izango du horiek ez aurkezteko, hala aurreikusten baita Herri-Adminis-trazioen Jardunbide Prozedura Erkideari buruzko 1eko 39/2015 Legearen 28.3. artikuluko bigarren paragrafoan. Horrelakoetan, interes erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dabe, esanez ez direla aldatu agiriok emon zen uneko ingurumariak, eta berriaz zehaztu beharko dabe ze agiri diren, zein datutakoak diren eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren.

**Zortzigarrena. — Aurkezteko lekua eta epea**

Eskaerak aurkezteko epea egutegiko 20 eguneko izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Erakunde eta/edo, hala badagokio, pertsona interesdunek Udaleko Erregistro Oro-korrean aurkeztu beharko dituzte eskaerak, edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak



Administrazio jardunbide Erkideari buruzko Legeak 16.4 artikuluan aipatzen dituen lekuetako edozeinetan.

**Bederatzigarrena. — *Ebazteko eta jakinarazteko epea***

Diru-laguntzak emoteko jardunbidea ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilekoa izango da eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik. Emondako eta ukatutako diru laguntzak jakinaraziko dira, bai eta emon ez direnak ere, azken horiek arrazoi hauek direla eta emon barik geratu badira: eskarian atzera egitea, eskubideari uko egitea edo gerora sortutako ezintasun materiala.

**Hamargarrena. — *Jakinarazteko bideak***

Ebazpenaren berri emango jakie interesdunei, hala aurreikusten baita administrazio jardunbide erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan.

**Hamaikagarena. — *Argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean eta webgunean***

2019. urteko hiri izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga eta 2018ko zarama eta estolderiagatiko tasak ordaintzeko errenta txikiak dabezan Barrikako familia-unitatei laguntzei buruzkodeialdia.